**Gordexolako Udala**
Ayuntamiento de Gordexola

# BANDOA

## UDAL IGERILEKUEN ERABILERA 2020 DENBORALDIA

Gaur egun COVID-19ak eragindako kutsatzeko arriskua dugun egoera eta udal igerilekuen erabileraren inguruan osasun agintarien jarraibideak kontuan hartuta, aparteko zenbait neurri ezarri behar dira.
Gordexolako bizilagunek ahalegin handia egin dute itxialdian eta deseskalatzearen fase bakoitzean. Asko dira ezin egin izan ditugun eta egingo ez ditugun jarduerak. Baina udal igerilekuen zerbitzua eskaini nahi dugu. Araudiak eta zuhurtziak aurten igerilekuen edukiera aurreko urteetakoa baino askoz txikiagoa izateko erabakia hartzera eraman gaituzte, hori dela eta, zerbitzua Gordexolako bizilagunentzat baino ez eskaintzea erabaki dugu.

Osoko Bilkura osatzen dugun pertsona guztiok **aho batez** jarraian zehazten diren aparteko neurriak adostu ditugu, gure bizilagunei eta instalazioaren kudeaketaren esleipendun diren enpresei zuzenduta.

**Txartelak eta sarrerak**

• Denboraldi honetan instalazioa udalerrian erroldatutakoek baino ezin izango dute erabili, **DENBORALDIKO TXARTELAK** eskatuta.

• Instalazioak ireki aurretik udaletxean **aldez aurretik** eskatu beharko da. Igerilekuak irekitzeko data uztailaren 1a izatea aurreikusi da, eta aurreinskripzioa ekainaren 15etik 26ra.

• Txartelak instalazioan bertan jaso behar dira, irekitzen denetik aurrera.
• Uztailaren 1etik aurrera egiten diren txartel-eskariak instalazioetan bertan egin beharko dira. Egiaztatu egingo da, udalarekin batera, eskatzailea erroldatuta dagoen edota bizi den, txartela egiteko.

• Inslatazioetara sartzea denboraldiko txartelarekin baino ez da baimenduko.
• Ez dira eguneko sarrerak egongo.
• Txartela atera ahal izango dute erroldatuta ez dauden adingabeek, baldin gurasoak banatuta bizi badira eta bietako bat erroldatuta badago.

## USO DE PISCINAS MUNICIPALES TEMPORADA 2020

Teniendo en cuenta la situación actual de riesgo de contagio por el COVID-19 y las indicaciones de la autoridad sanitaria sobre las medidas de prevención en el uso de las piscinas municipales es necesario establecer una serie de medidas extraordinarias.
Las vecinas y vecinos de Gordexola han hecho un gran esfuerzo en el confinamiento y las diferentes fases de desescalada. Son muchas las actividades que no hemos podido, ni vamos a poder disfrutar. Pero queremos ofrecer el servicio de las piscinas municipales. La normativa y la prudencia nos obligan a mantener un aforo mucho menor que en temporadas anteriores, por lo que nos hemos propuesto ofrecer este servicio disponible solo para las vecinas y vecinos de Gordexola.
**Por unanimidad** de todas las personas que componemos el Pleno Municipal se han consensuado las siguientes medidas extraordinarias dirigidas a nuestras/os vecinas/os y a las empresas adjudicatarias para la gestión de la instalación

**Abonos y entradas**

• El uso exclusivo de la instalación esta temporada será para la población empadronada en el municipio de Gordexola mediante la solicitud de **ABONOS DE TEMPORADA.**

• Será preciso solicitarlo **previamente** en el ayuntamiento antes de la apertura de las instalaciones para la elaboración de los carnets. Siendo la fecha prevista de apertura el 1 de julio, el plazo de preinscripción será del 15 al 26 de junio
• Los abonos se retiraran en la propia instalación a partir de su apertura.
• A partir del 1 de julio, las nuevas solicitudes de abonos serán en la instalación, desde donde se comprobará con el ayuntamiento su empadronamiento o residencia, para la elaboración del carnet.
• El acceso a las instalaciones sólo se permitirá mediante el abono de temporada.
• No se habilitarán entradas de día.
• Podrán abonarse los menores no empadronados cuyos progenitores vivan separados y uno se ellos este empadronado.

**Jendearentzako ordutegia**
• 11:30etik 15:00etara eta 16:15etik 20:00etara

Eremua garbitzeko eta mantentzeko lanak egin ondoren, instalazioak 16:15ean irekiko dira berriro. Instalazioetara sartzea eta horiek erabiltzea baimenduko da gehieneko edukiera bete arte.

Ordutegi hori aldatu ahal izango da, COVID-19ren bilakaerari lotutako beharrizan zehatzen arabera.

Erabiltzaileen eskarera-mailak, **zenbait egoera** eragin ditzake:
• **Arratsaldeko ordutegian gehieneko edukiera gainditzuz gero**, goizez ere egon diren erabiltzaileek instalaziotik alde egin behar dute, beste erabiltzaile batzuek erabil ahal izateko.
• **Txartel zenbakiaren araberako ordutegia ezartzea:**
Goizeko edo arratsaldeko ordutegia, egunero ordu-tartea txandakatuz:
1. txanda: 11:00etatik 15:00etara
2. txanda: 16:15etik 20:00etara
Ordutegia hiru fasetan, egunero txandakatuta, goranzko ordenean:
1. txanda 11:30etik 14:00etara
2. txanda: 14:30etik 17:00etara
3. txanda: 17:30etik 20:00etara
Ordutegia hori ezartzea beharrezkoa izango balitz, udal web orriaren eta whatsapp-aren bitartez eta instalazioan bertan jakinaraziko da.
Nolanahi ere, ordutegia ezarri izanak ez du bermatzen igerilekura sartu ahal izatea, une jakin batzuetan eskaria handia izan baitaiteke.

**Edukiera eta sarbidea kontrolatzeko neurriak**
• Igerilekuaren eta egoteko lekuaren (zelaia, eguzkia hartzeko espazioak, mahaiak...) kontuan hartuta 126 pertsonako edukiera baimentzen da, pertsonen arteko 2 mentroko urruntze soziala ziurtatzeko. Behin ezarritako edukiera helduta, ez da posible izango instalazioetara sartzea harik eta erabiltzaileen kopurua baimendutako edukieratik behera jaitsi arte.
• Sarrera lorategitik egingo da.
• Baliteke tenperatura hartzea.
• Erabiltzaileak instalazioetarako baino ez diren oinetakoekin sartuko dira.
• Ontzietan, gehieneko edukiera honako hau izango da: 50 pertsona handian eta 10 pertsona txikian

**Horario de apertura al publico**
• Lunes a domingo de 11:30 a 15:00 y de 16:15 a 20:00 horas.
Tras realizar las labores de limpieza y mantenimiento del recinto, se abrirán de nuevo las instalaciones a las 16:15 permitiéndose la entrada y uso de las instalaciones hasta completar el aforo máximo.
Este horario podrá sufrir modificaciones según las consideraciones o necesidades particulares de evolución del COVID-19
Si el nivel de demanda de usuarios lo precisara, se contemplarían **diversos escenarios**:
• **En caso de superar el aforo en horario de tarde,** los usuarios/as que hayan accedido también por la mañana, deberán abandonar la instalación para permitir el uso a nuevos abonados.
• **Asignar un horario por número de abono**:

Horario de mañana o de tarde, alternando cada día la franja horaria
Turno 1 de 11:30 a 15:00
Turno 2 de 16:15 a 20:00
Horario en tres fases con rotación cada día en orden ascendente:
Turno 1 de 11:30 a 14:00
Turno 2 de 14:30 a 17:00
Turno 3 de 17:30 a 20:00
Si fuera necesario esta asignación de horario, se informara de ello en la web y el whatsapp municipal y en la propia instalación.
La asignación de horario, en todo caso, no es garantía para el acceso a la piscina, ya que puede haber momentos en los cuales la demanda sea importante.

**Medidas de aforo y control de accesos**
• Teniendo en cuenta la configuración de la piscina y la zona estancia (pradera, espacios para tomar el sol, mesas…) se autoriza un aforo de 126 personas para asegurar el distanciamiento social mínimo de 2 metros entre personas. Una vez completo el aforo establecido, no se podrá acceder a la instalación hasta que no se reduzca el número de personas usuarias por debajo del aforo permitido.
• El acceso será por la puerta del jardín.
• Se considerará la toma de temperatura
• El acceso a la instalación se hará con calzado exclusivo para la misma.
• En los vasos, el aforo máximo que se permitirá será de: 50 personas en el grande y 10 personas

(haurra laguntzen duen heldua barne).
Sarbidean zorrotz errespetatu behar da lurrean jarritako bandek ezarritako pertsonen arteko **gutxieneko distantzia.**

Era berean, irteera modu ordenatuan egingo da, eta gomendatutako bi metroko tarteari eutsiko zaio.

Sorosleak edo instalazioaren kudeatzaileak izendatutako laginleak gainbegiratuko du eremuan zenbat erabiltzaile dauden eta zenbat bainulari dauden ontzi bakoitzean, eta haietara sartzea mugatu ahal izango du, autonomia-erkidegoan indarrean dagoen legeriaren eta deseskalatze-egoeraren arabera.

(incluido acompañante adulto).
En la zona de acceso se deben respetar de forma estricta la **distancia mínima** entre personas marcada por las bandas colocadas en el suelo.

Igualmente, la salida será de forma ordenada y manteniendo los dos metros de separación recomendados

Será el/la socorrista o el personal que designe el gestor de la instalación, el responsable de supervisar el número de personas usuarias en el recinto así como el número de bañistas en cada uno de los vasos y podrá restringir los accesos a los mismos de acuerdo con la legislación vigente la Comunidad Autónoma y el estado de desescalada.

**Igeriketa ikastaroak**
Ikastaroetan izena eman duten umeak eta horiekin doan heldua sartu ahal izango dira, dagokien ordu-tartea ez bada ere, baina denboraldiko txartela izan beharko dute.

**Cursos de natación**
Los niños y niñas apuntados en los cursos y el adulto que los acompañe, serán admitidos aun cuando no les corresponda la franja horaria, pero sí deberán tener el abono de temporada.

**Instalazioak erabiltzea**
- Aldagelak eta **aldageletako dutxak itxita** egongo dira denboraldi osoan.
- Iturriak itxita egongo dira deseskalatze fasean behintzat.
- Mahaiak gehienez 4 pertsonako taldeek erabili ahal izango dituzte.
- Ezin dira talde-kirolak egin, 10 pertsonatik gora bildu.
- Erabiltzaile bakoitzak sortutako zaborra eraikin nagusiaren aurrean dagoen edukiontzira atera beharko du.

**Uso de las instalaciones**
- Los vestuarios y duchas de los **vestuarios permanecerán cerrados** durante toda la temporada.
- Las fuentes de agua permanecerán clausuradas al menos durante las fases de desescalada.
- La utilización de mesas sólo se permitirá para grupos de hasta 4 personas máximo.
- Se prohíbe la realización de deportes colectivos, reuniones de más de 10 personas.
- La basura generada se debe sacar al contenedor frente al edificio principal.

**Bainulariak egote- edo igarotze- guneetako neurriak**
Objektu pertsonal guztiek, hala nola toalla, krema-poteak, igerilekuetarako baino erabiltzen ez diren oinetakoak, motxilak eta abar, **ezarritako segurtasun-perimetroaren barruan** egon behar dute, gainerako erabiltzaileekin kontakturik ez izateko.
Banaka erabiltzeko etzaulkiak edo hamakak baino ezin izango dira erabili. Ezin izango dira 2 metrora baino gutxiagora kokatu, familia-unitate berean bizi diren pertsonenak ez badira.

**Medidas en las zonas de estancia o de tránsito de los bañistas**
Todos los objetos personales como toalla, botes de crema, calzado de uso exclusivo para las piscinas, mochilas, etc. deben permanecer **dentro del perímetro de seguridad** establecido, evitando contacto con el resto de usuarios.

Sólo se permite la utilización de tumbonas o hamacas de uso individual. No se ubicarán a menos de 2 metros de distancia salvo entre personas convivientes en la misma unidad familiar.

**Instalazioak garbitzea**
Bainularien igarotze-guneak gutxienez egunean 2 aldiz garbitu eta desinfektatuko dira, jende gehien ibiltzen den lekuetan arreta handiagoa jarriz.

Erabiltzaileen eskuekin kontaktuan dauden gainazaletan, garbiketa eta desinfekzio ohikoagoa egin beharko da (aldageletako ateen heldulekuak, bainugelak edo dutxak, barandak, etab.).

Komunen garbiketa areagotu egingo da, erabileraren arabera, eta egiaztatu beharko da xaboia eta/edo soluzio hidro-alkoholikoak eta erabili eta botatzeko papera dituztela uneoro, eta paperontziak dituztela, estalkiarekin eta pedalarekin, eta horiek maiz hustuko direla.

**Gorabeheren kontrola**
COVID-19aren ondorioz egiten diren jarduera guztiak autokontrol-planaren erregistroetan jaso beharko dira.

**KARTEL OSAGARRIAK**
Eremuan jarriko diren karteletan COVID-19 arriskuaren ondoriozko oinarrizko arauak kontsultatu ahal izango dira:

- COVID-19rekin bat datozen sintomak badituzu (sukarra, eztula, arnas sintomak), igerilekutik irten lehenbailehen.
- Oinetakoak aldatu instalazioan sartu orduko.
- Segurtasun tartea mantendu, bai sarreran, bai irteeran ere.
- Segurtasun tartea mantendu instalazioan, zelaiko laukiek ezarritako distantzia errespetatuz.

- Eskuak behar bezala garbitu komunean.
- Toallak eta bainu-jantziak garbitu etxera heltzean.

**Gaur egungo egoerak eta normaltasuna garatzeko dakartzaten mugak kontuan hartuta, Gordexolako bizilagunei eskatu nahi diegu igerilekuen denboraldi honetan izango ditugun salbuespenezko neurriak uler ditzatela.**

**Limpieza de las instalaciones**
Se realizarán labores de limpieza y desinfección de las zonas de tránsito de los bañistas, al menos 2 veces al día, haciendo especial hincapié en las zonas más frecuentadas.
En aquellas superficies en contacto con las manos de los usuarios se deberá llevar a cabo una limpieza y desinfección más frecuente (pomos de las puertas de vestuarios, baños o duchas, barandillas, etc.).
Se intensificará, adecuadamente en función de su uso, la limpieza de los aseos y se deberá verificar que, en todo momento, estén dotados de jabón y/ o soluciones hidro-alcohólicas, papel desechable y que disponen de papeleras con tapadera y pedal, las cuales se vaciarán frecuentemente.

**Control de incidencias**
Todas las operaciones que se lleven a cabo debido al COVID-19 deberán anotarse en los registros del plan de autocontrol

**CARTELERIA COMPLEMENTARIA**
En la cartelería distribuida por el recinto pueden consultarse las normas básicas derivadas del riesgo del COVID-19:

- Si tiene síntomas compatibles con la COVID-19, (fiebre, tos, síntomas respiratorios…), abandone la piscina cuanto antes.
- Cambio de calzado al entrar en la instalación.
- Mantenimiento de distancia de seguridad en el acceso y salida.
- Mantenimiento de distancia de seguridad dentro de toda la instalación, respetando la distancia en las cuadriculas de la zona de campa.
- Lavado correcto de manos en WC´s
- Lavado de toallas y bañadores al llegar a casa.

**Ante las circunstancias presentes y la limitaciones que suponen para el desarrollo de la normalidad, solicitamos a las vecinas y vecinos de Gordexola su colaboración y comprensión por las medidas excepcionales que tendremos esta temporada de piscinas**.

Gordexolako Udala • Molinar plaza 1 • 48192 Gordexola (Bizkaia) • Tel. 94 679 97 04 • Faxa: 94 679 80 04 • udala@gordexola.eus
www.gordexola.eus